


2010eko Udazkenako Txostena

Bake-prozesuaren azterketa.



Erantzen berritzaileak eskatzen
diruzten koordenatu berritzaile
baruzetan gaude kokaturuta

Aurkezpena

Urte eta erdi joan da Lokarrik, hau da, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren sareak, bake-prozesuaren Behatoki Soziala 2009ko uztailean abiarazi zuenetik. Orduz geroztik, zazpi galdetegi zabaldu ditugu, herritarrek gure gizartean bakearekin eta bizikidetzarekin lotuta dauden gaien inguruan zer iritzi dituzten eta zer ekarpen egin dituzten ezagutzeko. Lokarriren iritziak, gizartearen parte-hartzea atzera bueltarik ez duen bake prozesu baten baldintza ezinbestekoa da, beraz jendearen parte hartzerako bitarteko honek garrantzi handia dauka. Alde batetik bakearekiko interesa eta bakearen alde lan egiten duten pertsona ororen iritziak jasotzeko baliabide bat da. Bestalde, jasotako ekarpenek Lokarriren lana hobeto egokitzen laguntzen dute.

Ezinbesteko argibidea txosten honetan bildutako galderak, erantzunak eta azterketa ulertzeko.

2010eko udazkeneko egoera aztertzen duen txosten honen edukiak 2011ko urtarrilaren 11n ETAk iragarritako su-etenaren aurretik hasi ziren lantzen eta bukatutzat eman dira gertaera horren ondotik. Horrela, galdetegiaren erantzunak –bakeranzko prozesuaren egoera aztertzeko hartzen ditugu oinarri– abenduaren 15a baino lehen jaso ziren eta ordura arteko gertaerekin daude lotuta. Soilik Lokarriren gomendioen atalean egin diraaldaketak azken gertaeren eraginez. Izan ere, gomendioak egiteko orduan, bakeranzko egoeraren azterketa zein unean uneko testuinguru sozial eta politikoa hartzen baititugu kontuan.

Horrenbestez, zabaldutako galdetegiaren bidez jasotako galderen erantzunak (982 dira guztira) biltzen ditu txosten honek, bai eta Tokiko Behatokitian lorturiko ondorioak ere. 2010eko abenduan zehar, ETAREN su-etenaren aurretik, Tokiko Behatokiaren 12 bilera egin dira. Saio horietan, 89 lagunek hartu dute parte, eta kontu hauek eztabaidatu dira: 2006ko bake-prozesuan izandako okerrak; gaur egun, oker horiek berberak berriro gertatzeko dauden arriskuak, eta une honetan zer pauso eman beharko lituzketen bake-prozesu batean inplikaturik dauden eragileak.

Txosten honek atal hauek ditu:

- 1- Bakeranzko prozesuaren egoera. Galdetegiak emandako emaitzen azterketa
- 2- Tokiko Behatokiaren ondorioak
- 3- Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa
- 4- Lokarriren gomendioak beste bake-prozesu bat bultzatzeko

Aurreko aldietan bezala, Lokarrik konpromisoa hartzen du Txosten honetako emaitzak gizarte eta politika arloko eragileei helarazteko, lehen eskutik jakin dezaten zer iritzi dituzten eta zer ekarpen egin dituzten galdetegiari erantzun dioten pertsonak, betiere gure gizartean bakearekin eta bizikidetzarekin lotuta dauden kontuen inguruan.

Bakeranzko prozesuaren egoera

Galdetegiak emandako emaitzen azterketa*

* Atal honetan jasotako galderak zein erantzunak ETAk 2011ko urtarrilaren 10ean egindako su-eten adierazpena baino hilabete bat lehenagotik prestatuak eta jasoak dira.

1. Zer iritzi duzu bakerako prozesuaren egoeraz?

Bake-prozesuaren egoerari buruzko pertzepzioak gero eta positiboagoa izaten jarraitzen du. 2009ko udan, batez besteko nota 2,8, baldin bazen, oraingo honetan egoerari 6,2ko nota eman zaio batez beste; hau da, datu hori oso antzekoa da 2010eko udako txostenean lortutakoarekin, harako hura 6,1 izan baitzen.

Ia erantzun erdiek, %48k, 6ko eta 7ko nota eman diote bakerako prozesuaren egoerari. Jasotako erantzunen %21ek, berriz, 5eko nota eman diote, eta %15ek, 8koa.

%5ek baizik ez du egoera oso ontzat jotzen (9ko eta 10eko notak), eta %11 kontrako muturrean dago, hau da, haien iritziz, egoera txarra edo oso txarra da (1 eta 4 arteko kalifikazioa). Azken datu horri dagokionez, azpimarratu behar da iritzi horrek nabarmen egin duela behera azken urte honetan. Izan ere, 2009ko udan, erantzunen % 88k iritzi ezkorra agertu zuten; 2009ko neguko txostenean, %43k; 2010eko udaberriko txostenean, %37k, eta orain arteko azken txostenean, 2010eko udan argitaratutako hartan, %15ek.

Egoerari erantzun baikorra (6 eta 10 arteko nota) eman diotenenek, nagusiki, arrazoi hauek erabili dituzte: Ezker Abertzalearen apustu itzulezina eta alde batekoa; ETAk indarkeria alde batera utziko duen itxaropena, orain artean argitaratutako komunikatuen ondotik; nazioarteko sostengua; aliantza politikoak, Gernikako Akordioa, adibidez; eta gizartearen agertoki berriaren alde dagoen mobilizazioa.

Egoerari zenbat eta nota apalagoa eman, erantzunetan gero eta zalantza handiagoak agertzen dira: ETAk laster behin betiko pausoa ematearekiko konfiantzarik eza; Eusko Jaurlaritzaren eta Gobernu Zentralaren jarrera immobilista bai Ezker Abertzalearen legalizazioari buruz bai beste kontu batzuei buruz; espetxeratuak eta atxilotuak egoera, eta alderdikeriak eta interes ekonomikoak.

Notarik apalena ematen duten erantzunek (1 eta 4 artean) diote ETA ez dela disolbatu, Ezker Abertzalearen apustua ez dela nahikoa eta/edo Gobernuak ez dutela interesik bake-prozesu berri bat abiarazteko.

2. Duela urte bat baino aukera gehiago dago bakea lortzeko?

Erantzunen %85ek dio orain aukera gehiago dagoela duela urte bat baino bakea lortzeko. Horrek esan nahi du iritzi horrek gora egin duela etengabe azken hilabeteotan; horrela, %66 izan zen 2010eko udaberriko txostenean, eta %78, urte bereko udakoan. Bestalde, % 3k ezezkia eman dio galdera horri, eta aurreko txostenean, aldiz, %2 izan zen. %10ek, berriz, aukera berdina daudela erantzun du, eta % 2k, azkenik, ez daki, ez du erantzuten aukeraren alde egin du. Azken bi datu horiei dagokienez, inkestatutako lagunen % 16k bereizi zuen aukera hori azken txostenean, eta % 4k, berriz, bigarrena.

Baiezkoa erantzuteko erabili diren arrazoiak, funtsean, hauek izan dira: ETAk atentaturik egin ez izana; Ezker Abertzaleak bitarteko demokratiko eta baketsuen alde egindako apustua; alderdi politiko eta gizarte erakunde batzuek erakusten duten konpromisoa; eta Bruselako Adierazpeneko liderrek emandako sostengua. Era berean, oro har pentsatzen da emandako pausok sendoak direla eta bakeranzko ahalegin hau behin betikoa izango dela.

Orain dela urte bat baino aukera gutxiago dagoela pentsatzen dutenek diote ez direla nahikoak ez sinesgarriak ETak eta Ezker Abertzaleak emandako pausoak, eta Gobernuaren jarrera immobilistak aurrerapausoak eragozten dituela. Aukerak duela urtebeteko berberak direla diotenek aurrekoen antzeko argudioak agertu dituzte, eta nabarmentzen dute zer egina duten eragileen artean inork ez duela arazoari konponbidea emateko borondaterik.


3. Seinala itzazu zure iritzian bakea lortzeko dauden oztopo nagusiak

Hona hemen galdetegiari erantzuna eman diotenek bakeranzko bidean adierazitako oztopo nagusiak: ETaren indarkeria, %53k aukeratutakoa, eta Gobernuen jarrera irmoa, erantzunen %52k aukeratutakoa. Hirugarren tokian Ezker Abertzalearen ilegalizazioa ageri da, %49k aukeratutakoa, eta laugarren tokian, berriz, desenkontru politikoak daude, erantzunen %32,5ekin. Beste erantzun batzuk ere badaude: presoek sakabanaketa (%17) eta torturak (%13).

Bukatzeko, beste batzuk aukeraren alde egin dutenek (%10ek) argudio edo arrazoi hauek eman dituzte: ETak ez diola hitzez hitzeko erantzuna eman nahi Bruselako Adierazpenari; alderdikeriek bakeranzko lana zailtzen edo eragozten dutela, eta zenbait komunikabidek gaia jorratzerakoan darabilten jarrera.

4. Zure iritzian, betetzen al dira bake-prozesu berri bat abiatzeko baldintzak?

Galdera honi baiezko erantzuna eman diotenek ehunekoak gora egiten jarraitzen du aurreko txostenekin alderatuta. Izan ere, azken bi txostenetan baietz erantzundakoak %50 eta %62 izan ziren, hurrenez hurren, eta oraingo honetan, aldiz, dagoeneko %70ek pentsatzen du baldintzak bete egiten direla bake-prozesu berri bat abiarazteko. Datu hori, hortaz, oso urrun dago 2009ko udan aukera horren alde egin zutenen %25 hartatik. Bestalde, aurreko txostenean bezala, oraingo honetan ere, %16k ezetz erantzun du. %7k beste batzuk erantzun du eta ehuneko berberak ez daki/ez du erantzuten aukeratu du; bi aukera horiek behera jo dute aurreko txostenaren aldean (%14 eta %18, hurrenez hurren).



Bai: %70

Ez: %16%

Ez daki/Ez erantzun: %7

Besteak: %7

Hona hemen, besteak beste, baiezkoa erantzun dutenek emandako arrazoi nagusiak: oro har, pentsatzen dute indarkeriak ez duela tokirik, eta ideia horrek ETAn eragina izan dezakeela; Ezker Abertzaleak emandako pausoak, bereziki Alderdien Legeak dakartzan baldintzak beteko dituztela adierazi izana eta beste talde

batzuekin izandako bilerak; Bruselako Adierazpenaren garrantzia, horrek nazioartean euskarria eskaintzen duelako, eta Gernikako Akordioaren garrantzia; Gobernu bere kudeaketan emaitza onak eskaini beharrean dago, krisi ekonomikoa dagoen honetan eta, azkenik, gizartearen borondatea eta gizartearen bake-nahia. Nabarmendu behar da, halaber, erantzun asko bat datozela esaterakoan beti baldintzak bete egiten direla bakea lortzen saiatzeko eta, borondatez, ahaleginak egiten jarraitu behar dela bakea lortzeko.

Ezezko erantzuna emandakoek adierazi dute oraindik ETAk ez dituela armak utzi; Ezker Abertzaleak oraindik ez duela argi eta garbi esan ETArekin ekintzak errefusatzeko; Ezker Abertzalea legeztatu beharra dagoela, bake-prozesu berri bat abia dadin; gobernuak jarrera immobilista eta itxiari eusten diotela, eta hainbeste saiakerak huts egin ondoren, gizarteak ez duela behar hainbateko sinesgarritasunik orain arte emandako urratsetan. Ez daki/ez du erantzuten eta beste batzuk erantzundakoek, beren aldetik, diote ez dutela informaziorik edota, aurrerapauso batzuk izan badira ere, askoz ere gehiago behar direla.

5. Ezker Abertzalearen antolakunde berriaren oinarriak aurkeztu direlarik, legeztatuak izan behar direla uste duzu?

Erantzun gehienek baietz esan dute; erantzun guztien %84k, zehazki. Eta baiezkoa esan dutenen hiru lagunetik bik, %61ek, erantzun dute Ezker Abertzalea legeztatu behar dela indarkeria jadanik gaitzetsi duelako; %23k, ordea, gauza bera dio, baina Ezker Abertzaleak ETArekin indarkeria ere berariaz gaitzetsi beharko lukeela gaineratuta. Inkestatuen %2k ezezkoa dio, Ezker Abertzaleak ETA gaitzetsi beharko lukeelako eta, indarkeria-urte guztiengatik, barkamena eskatu. Bestalde, %1ek baino gutxiagok egin du aukera honen alde: egiten dutena egiten dutela ere, ETAk zatia direla, eta berrogeialdian jarri behar dutela legearen barruan jardun ahal izateko.

6. ETAk positiboki erantzunez gero Bruselako Adierazpenak eta Gernikako Akordioak eskatutako baldintzetan, zeintzuk izan beharko liriateke hurrengo urratsak?

Hona hemen galdera honen aurrean onarpen handiena izan duten aukerak: elkarrizketa hastea, inor baztertu gabe (%68) eta Ezker Abertzalea legeztatzea (%65). Galdetegiari erantzundakoek (%45ek) hirugarren pauso bat ere adierazi dute, hauxe zehazki: espetxe-politika aldatzea, giza-eskubideekiko begirunetsuagoa izan dadin, eta azkenik, %6,5ek dio ez dela urrats bakar bat ere eman behar ETAk armak ematen ez dituen arte.

% 4k beste batzuk aukeraren alde egin dute eta gehienek diote ETAk indarkeria behin betiko utzi behar duela bakerantzko prozesuari hasiera emateko.

7. ETAk indarkeriari amaiera jarrietz gero, komenigarria litzateke abian jartzea elkarrizketa foro bat?

Jende gehienaren iritziz (%86,5), komenigarria izango litzateke elkarrizketa foro bat abian jartzea ETAk indarkeriari amaiera jarrietz gero. Galdetegiari erantzuna eman dioten %4,5en ustez, aldiz, ez da beharrezkoa elkarrizketa foroa, parlamentuen eginkizuna baita. Bestalde, %4k baldintza bat jartzen du elkarrizketa foroa abiarazteko; hots, argi geratzea ETAk indarkeriari amaiera eman diola.

Beste batzuk aukeraren alde (%5) egin dutenen artean nabarmendu behar da Ezker Abertzaleak edozein alderdik bezala elkarrizketa foroan parte hartu beharko lukeela adierazi dutenen iritzia eta, era berean, Gobernuaren eta

ETAren arteko balizko elkarrizketa batean, presoek eta armak entregatzeari buruz soil-soilik hitz egin beharko litzatekeela pentsatzen dutenen iritzia.

8. Zer iritzi duzu nazioarteko erraztaileek Euskal Herrian bake-prozesu batean egin dezaketean lanaz?

Iritzien %93 bat datoz esaterakoan bake-prozesuari ekarpen positiboa egiten ahal diotela: %66,5ek dio haien eskarmentua, neutraltasuna eta sinesgarritasuna baliagarri izaten ahal zaizkigula bakearen alde aurrera egiteko eta, %26,5ren ustez, eginkizun garrantzitsua bete dezakete Europari erakusteko bere partaidetzak prozesuan garrantzi handia izan dezakeela. %1ek bakarrik pentsatzen du haien ekarpenak konfiantza baino mesfidantza handiagoa sortzen duela eta, %2ren iritziak, ez daude ezer egiteko legimitatuta, inork ez baitie deitu.

Erantzunen gainerako %4k beste batzuk aukera bereizi eta hainbat argudio agertu dituzte; adibidez, ekarpen oro onuragarria da arazoari irtenbide txarra ez emateko; haien ekarpena ona izanda ere, arazoa eta irtenbidea etxean daude; balio dezake hurbiltzeko, baina ez arazo globalari ekiteko, edo gobernuan egiazki eragina lukeen bitartekari bat egon beharko litzatekeela, Obama, esate baterako. Aukera hori ere erabili da ez daki/ez du erantzuten erantzuteko.

9. Zer iritzi duzu Estatuko segurtasun indarren, gerra zikinaren (BVE, GAL...) edo kontrolik gabeko taldeen indarkeriak eragindako Giza Eskubideen urraketen biktimei aintzatespena eskaintzearen gainean zabaldu den eztabaidaz?

Lortutako erantzun gehienek (%81ek) diote sufrimendu mota guztiak berdin aintzatetsi behar direla, bereizketarik gabe, kaltearen egilea nor den kontuan hartu gabe, alegia. Aldiz, %1ek soilik dio ETAren biktimek lehenetsi behar direla, ETA indarrean dirauen talde armatu bakarra baita. Eta %6k dio Estatuko segurtasun indarren, gerra zikinaren edo kontrolik gabeko taldeen indarkeriak eragindako Giza Eskubideen urraketen biktimek lehenetsi behar direla, ETAren biktimei jadanik aintzatespen nahikoa eskaini baitzaie.

Eta %6ri ere ongi iruditzen zaie biktima guztiak aintzat hartzea, baina parekatu gabe.

%6k, azkenik, beste batzuk aukeraren alde egin du, biktimek bake-prozesuan izan beharko luketen eginkizunari buruzko iritzia emateko. Horrela, ekarpen gehienek diote biktimei taldeak ez lukeela irtenbideen bilaketa baldintzatu beharko, baina aitopen sozial eta politiko zabala jaso beharko luke.

10.1 Balora ezazu gobernuak bakeari eta normalizazioari egindako ekarpena

Jendeak oso balorazio txarra izaten jarraitzen du gobernuak bakeari egindako ekarpenaz, batez beste 2,03ko nota eman baitiote. Baloraziorik txarrena Nafarroako Gobernuak jaso du, eta antzera gertatu zen udaberriko txostenean, batez beste 1,87ko nota eman baitzitaion.


Gobernu zentralari 2,79ko balorazioa eman zaio txosten honetan (2,19koa, 2010eko udaberriko txostenean) eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, 2,92koa (udaberriko txostenean, 2,47koa eman zitzaion). Nabarmendu behar da ia bikoiztu dela gobernu zentralaren lanari hala-moduzkoa (5 eta 6 arteko nota) iritzi diotenen kopurua: zehazki, udaberriko txostenean %6 izan ziren, eta oraingo honetan, berriz, %12.

Gobernuen lanari egindako kritikak era positiboan adierazita, galdetegi honi erantzun diotenek jarrera konprometituago bat eskatu dute irekitzeko zorian dagoen agertokiaren aurrean eta malgutasun handiagoz jokatzeko.

10.2 Balora ezazu alderdi politikoek bakeari eta normalizazioari egindako ekarpena

Aurreko txostenetako joerari eutsiz, hona hemen zein diren alderdi politikorik baloratuena, bakeari eta normalizazioari egindako ekarpenari dagokionez: Aralar eta Eusko Alkartasuna, bi-biek batez beste 7ko nota lortu baitute, Ezker Abertzalea (6,55), Ezker Batua (6,3) eta EAJ/PNV (5,25). Nabarmendu behar da, batetik, EAJk berreskuratu duela orain dela urtebete lortu zuen balorazioa (5), udaberriko txostenean hari buruzko balorazioak behera egin ondoren (4,95) eta, bestetik, pare bat indarrek (Eusko Alkartasunak eta Ezker Abertzaleak, zehazki) egin duten jauzi kualitatiboa, duela urtebete lortutako balorazioaren aldean; 5,7 eta 4,3, hurrenez hurren.

Beste behin ere, baloraziorik txarrena jaso duten indarrak PSE-PSN, UPyD eta PP izan dira: 3,09, 1,55 eta 1,47 notarekin, batez beste. PSE-PSNren balorazioak bakarrik izan du igoera positibo esanguratsua orain dela urte bateko txostenaren aldean, batez beste 2,4ko nota izan baitzuen.



Galdetegiari erantzun diotenek alderdi politikoei eskatu diete hauteskunde-xedeak alde batera uzteko eta elkarriketaren aldeko ahalegina egiteko, denok bere baitan bildu beharko gintuzkeen xedea lortze aldera: bakea, alegia. Hartara, elkarriketa gehiago eskatzen dute eta, era berean, iraganeko okerretatik ikasteko, eskuzabaltasuna, malgutasuna, enpatia, eta lan egin dezatela elkarren arteko konfiantza eta elkar aditze giroa sortzeko.

10.3 Lokarriren jarduerari buruzko balorazioa

Aurreko txostenetako joerari eutsiz, Lokarriren lanari 8,31ko balorazioa eman zaio; hau da, udaberriko txostenean lortutako kalifikazioaren gainetik, orduko hartan 8,08koa izan baitzen. Galdetegiari erantzun dioten lagun gehienek eskertu dute Lokarri bakearen aldeko baldintzak sortzeko egiten ari den lana eta, era berean, haien iritziz, Lokarri norabide onean ari da lan egiten, eta gauza bakarra deitoratzen dute: oihartzun handigorik ez ematea.

Egindako ekarpen batzuk

Akordioa aurkariarekin bilatuko beharko lukete, iritzi guztiak entzun, etorkizuneko belaunaldiak aintzat hartu.

Afera ez da botere politikoa, elkarbizitza soziala baizik.

Gerratan ez dira izan behar garaileak eta garaituak, inor umilarazten ez dituen akordioak baizik. Gainerakoa akats bat da.

Beti ematen dira baldintzak hizketan hasteko

Uste dut eman direla aurrerapauso nabarmenak, baina ez da izango prozesu lineala

Biktima guztiak berdin babestuko dituen politika behar da, ahantziak izan ez daitezen.

Egoera politikoa aldatu dela ukaezina da eta, prozesuari begira jarrita, aurrerapausoak eman direla onartu behar da.

Ezker Abertzale ofizialak politika egin nahi du ETAren eskutik joan gabe; konturatu dira ETA berez arazo bat dela, bai beraientzat eta bai Euskal Herriarentzat ere.

Biktimak dira erresumina eta gorrotoa maneia ditzaketen bakarrak, baina gorrotoarekin eta erresuminarekin ezinezkoa da bakea bilatzea.

Seriotasunez eta interes politiko-ekonomikoak baztertuz, eztabaida publiko/parte hartzaileari ekitea da beharrezkoa

Tokiko Behatokietan ateratako ondorioak

Azaroan eta abenduan, hau da, ETAk urtarrilaren 10ean eginiko su-eten adierazpenaren aurretik, Tokian tokiko hamabi Behatoki egin dira eta, guztira, 89 lagunek parte hartu dute. Bilerak, zehazki, Antzuolan, Barakaldon, Bilbo-Abandon, Bilbo-Indautxun, Bilbo-Santutxun, Donostian, Galdakaon, Hernanin, Iruñean, Portugaleten, Tolosan eta Gasteizen egin dira.

Bileren gai nagusia hauxe izan da: “Iraganetik ikasiz, ekin diezaiegun etorkizuneko erronkei itzulezinezko bake-prozesu baterako”. Hartara, aurreko bake-prozesuan egindako okerrak izan dira eztabaidagai, gaur egun oker haiek errepikatzeke dauden arriskuak eta, era berean, zer egina eta zer esana duten eragileek une honetan zer pauso eman beharko lituzketen.

Dinamika parte-hartzailea oinarri harturik, bilera horietan aritutakoek galdera hauei erantzun diete:

1. Zeintzuk izan ziren aurreko bake-prozesuan egin ziren oker nagusiak?

Bileretara bertaratutakoek eztabaida interesgarriak izan dituzte aurreko bake-prozesuan izandako okerrei buruz. Okerrak bi multzo handitan sailka daitezke. Hona hemen:

1.1. Implikatutako eragileei egotzitako okerrak

Okerretako bat ETAk prozesua soka motzean lotu nahi izatea izan zen eta, horrez gain, indarkeriari uko ez egitea, abenduaren 29ko Barajasko atentatua eragin zuena. Horri gehitu behar zaio, batetik, Ezker Abertzalea legez kanpo egotea eta, bestetik, Ezker Abertzaleak gidaritzarik ez izatea ETArekin indarkeria errefusatzeari dagokionez, eta une hartan indarkeria bera ez errefusatzeari.

Halaber, jendearen iritziz, Gobernuak oker jokatu zuen, keinurik egin ez izanagatik (espetze-politikari dagokionean, adibidez), jarrera immobilista agertzeagatik eta erabakitazunik ez izateagatik. Era berean, alderdi politiko batzuen jarrerari egin zaio kritika, bai eta komunikabide batzuei ere, prozesuaren kontra oso irmo jokatu zutelako. Beste oker bati ere atzeman zaio; hots, nazioartean aurreikuspenik ez izatea, horrek prozesuari bultzada onuragarria emango ziolako.

Azkenik, jendearen iritziz, gizarteak ere oker garrantzitsuak egin zituen: esaterako, gizarte-partaidetza prozesuan baztertu izanaren ondorioz, gizartearen inplikazioa oso txikia izan zen, prozesuaren aldeko gizarte zibila ez zen antolatu, eta ikusle hutsak izatera bazterturik gelditu ziren; horrenbestez, handiagoa eta ozenagoa izan zen prozesuaren alde ez zeuden sektoreen gizarte-presioa.

1.2. Elkarrizketen garapenari egotzitako okerrak

Lehenik eta behin, jendearen iritziz, elkarrizketetan aritutako mintzakideek ez zituzten erabat ordezkatzeko defenditzen zituzten jarrerak. Gainera, ez ziren behar bezain anitzak izan eta ez zuten behar hainbateko konfiantzarik sortu sektoreetan. Halaber, oker handia iritzi zaio elkarrizketak sekretismoan izateari eta gardentasunik ezari.

Metodologiari dagokionez, azpimarratzen da ez zirela aurretik oinarritzko printzipioak ezarri, elkarrizketen garapen ona bermatzeko eta gotortzeko, eta ez zela edukien agenda argia finkatu.

Egindako ekarpen batzuk

Konturatu hau denon afera dela. Hernani

Gizarteak oso aktiboa izan behar du prozesua blindatzeko. Galdakao

Boulebarrean pertsona talde bat eseri badaiteke, zergatik ez alderdiak? Donostia

ETAk desagertu egin behar du, ez baita herriaren ordezkaria. Barakaldo

Akordio eta elkarrizketa-mahaia helburu argi batekin: denok kudeaturiko elkarbizitza barneratzailea. Indautxu

Prozesu batean beharrezkoa da diskrezioa neurri batean, baina egutegi publiko batekin. Portugalete

Indarkeriaren etetearen iragarpena Bruselako eta Gernikako adierazpenetan eskatzen den bezala. Abando

Ikasiko ote dugu noizbait? Tolosa

Partaideak izatea eta ez soilik behatzaileak. Vitoria-Gasteiz

Giza Eskubideak erabateko arduraz betetzea eta aplikatzea. Santutxu

Desadostasunak daudela onartu eta eguneroko jarreran elkarbizitza landu Antzuola

Bide politiko baten aukera ematea Ezker Abertzaleari. Iruña

2. Zure iritziz, oker berberak egin daitezke? Zer arrisku daude orain, 2010eko udazkenean, oker berberak eta handiagoak gertatzeko eta bestelakoak sortzeko?

Behin okerrak aztertutakoan, parte-hartzaileek gogoeta-ariketa bat egin zuten, gaur egun oker horiek berriro gerta ote litezkeen ikusteko eta, are gehiago, bestelako inguruabarrek bestelako okerrak sor ote litzaketen ikusteko.

ETAren jarrerari dagokionez, arrisku hau hautematen da: laster batean, indarkeria behin betiko uztea ez adieraztea, haren erritmoa nahi baino motelagoa delako, Mitchell printzipioak egiazki barneratuak ez dituelako edo ETako kideen artean ahobatezkotasunik ez dagoelako, eta horrek irtenbide txarra eman liezaiokie.

Era berean, arriskutzat jotzen da Gobernuak jarrera immobilistari eustea, interesik ez duelako edo prozesuaren kontrako sektoreek eraginda. Gainera, Giza Eskubideak urratzen dituzten egoeren arriskua aipatzen da; torturak eta atxiloketa bereizi gabeak, adibidez.

Horri dagokionez, azpimarratzen da Ezker Abertzalea legez kanpo mantentzearen egoera eta, are gauza larriagoa ere bai: hots, erakundeetara itzultzeko eskakizunak zorrotzu zaizkiola, alderdi politiko eta biktimen elkarte batzuen presioaren ondorioz.

Azkenik, gizartea eta bake-prozesu berri bati lotutako beste arrisku batzuk aipatu dira: pazientziarik eza, ilusiorik eza edo, are gehiago, apatia, gertakari berriak atzeratzeak eragindakoa edota errealitateak espektatibei ez erantzuteak eraginda.

3. Zer egin beharko lukete eragile hauek, iraganeko okerrak gainditzeko: ETAk, alderdi politikoek eta erakundeek, eta gizarteak? Zer eginkizun bete beharko lukete eta zer urrats eman beharko lituzkete?

ETARI eskakizun hau zuzentzen zaio iraganeko okerrak gainditzeko: lehenbailehen baiezkoa eman diezaiola bai Bruselako Adierazpenari bai Gernikako Akordioari, eta adieraz dezala borroka armatua eta estortsioa behin betiko uzten dituela era egiaztagarri eta aldebakarreko batez. Halaber, eskatzen zaio prozesua bere begipetik kanpo uzteko eta ordain politikoei uko egiteko.

Gobernuari eta erakundeei argi eta garbi eskatzen zaie Alderdien Legea deuseztatzeko, Ezker Abertzalea legeztatze aldera, eta Ezker Abertzaleko buruzagiak berehalakoan askatzeko. Alderdi politikoei dagokienez, oro har, eskatzen zaie gizartearen bake-eskaerei erantzuteko, alderdikeriak alde batera utzita, eta oinarri sendoak ezartzeko, akordio inklusiboak egiteko; era berean, eskatzen zaie Giza Eskubideak zehatz-mehatz errespetatzeko, biktima guztiak aintzat hartzeko eta gizatiartze-politikak kudeatzeko. Eta, Ezker Abertzaleari zehazki eskatzen zaio argiago deslotu dadila ETAren indarkeriatik.

Azkenik, jendearen iritziz, gizarteari erne egoteko eta eragiteko eskatzen zaio, arestian aipatutako eragile bakoitzak bere pausoak eman ditzan, bakea lortzen laguntzeko. Horrela, gizarteak etengabe informatua egon beharko du, prozesuan parte hartzeko, inplikatzeko eta huraxe laguntzeko, indarrak batuz eta koordinatuz, prozesuari are bultzada handiagoa emateko. Eta, horretaz gain, parte-hartzaileak bat datoz esaterakoan gizarteak gauza izan behar duela bakea posiblea dela sinesteko, denok ukitzen gaituela eta adiskidetzera prestatu behar dugula.

Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa

Honako azterketa hau ETaren komunikatuaren aurretik jasotako erantzunetan oinarritu da, beraz su-eten adierazpenaren aurreko testuinguru baten baitan ulertu behar da.

2010eko udazkenari dagokion Behatokiaren Txostena egiteko zabaldu zen galdetegiaren bidez jasotako erantzunak aztertu eta gero, gehiengoaren jarrera itxaropentsua ondorioztatu da. Jarrera horren oinarri dira, funtsean, lau gertaera eta gizartearen uste sendoa elkarrizketaren beharrea. Bakerako aukera hau behin betikoa izan daiteela pentsarazten dute oinarri horiek. Haatik, lau arrisku handi hautematen dira erantzunetan eta lau erronka handi planteatzen dituzte arrisku horiek, izan ere, denboran mantenduz gero bake-prozesu berri baten garapena oso era ezkorrean baldintza baitezateke.

1. Ematen dira bake prozesu berri baterako baldintzak

Gertaera hauetan datzate itxaropenerako arrazoiak:

- ETaren azken komunikatuak kaleratu ondoren eta atentaturik gabe hilabeteak pasa eta gero, ETak indarkeriaren erabilera behin betiko uzteko aukera,
- behin eta berriz erakutsitako baliabide baketsu eta politikoen aldeko Ezker Abertzalearen apostu irmoa, zeinak honako adierazpideak izan dituen: indarkeriari errefusa agertu izana eta Alderdien legeari men egiteko erakutsi duten borondatea 2011ko foru eta udal hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko,
- bake-prozesu berri baten aldeko lankidetzatza politiko eta sozialerako guneen sendotzea,
- nazioarteko sostengua, gatazken konponketan adituak diren izen handiko pertsonen sinaturiko Bruselako Adierazpenean zehaztua.

2. Gizartearen uste sendoa

Une hauetan elkarrizketa, giza eskubideekiko errespetua eta borondate politikoa beharrezkoak direla irmoki sinistuta dago gizartea eta, desadostasunetatik harago, sektore politiko eta sozial ezberdinetatik formula eraikitzaileak bilatzeko unea dela sinistuta dago ere bai bakea lortu nahi bada.

3. Lau arrisku eta lau erronka

a) ETaren indarkeria

Arriskua: ETak indarkeria behin betiko ez baztertzea, bai isilik jarraitzen duelako bai Bruselako Adierazpenean zein Gernikako Akordioan eskatutakoari erantzuten ez dion komunikatu bat ateratzen duelako.

Erronka: datozen asteetan aldebakarreko su-eten, iraunkor eta egiaztagarria iragarri behar du ETak, indarkeria behin betiko uzteko bere borondatea zalantzarik gabe erakutsiko duen iragarpena izan behar du.

b) Ezker Abertzalearen ilegalizazioa

Arriskua: Ezker Abertzalea legez kanpo egoten jarraitzea indarkeriari uko egin arren. Hala izanik, eragotziko liezaioket bakeranzko prozesu batean aukera berdintasunean parte hartu ahal izatea, bere proposamen politikoak zabaltzeko aukera eta, zehazkiago, datozen udal eta foru hauteskundeetan parte hartu ahal izatea.

Erronka: Ezker Abertzalearen legalizazioa bizitza politikoan aukera berdintasunean jardun ahal izateko, modu horretan gizartearen zati garrantzitsu baten bazterketa eragotziz.

c) Gobernuaren jarrera higiezina

Arriskua: Gobernuak jarrera higiezinari eustea, bakeranzko prozesua ez erraztuz eta oztopo berriak era ezkorrean gaineratuz indar politikoen arteko elkarrizketari, eta askatasun demokratikoen murrizketa. Ezker Abertzalearen legalizazioa ez onartzea da arrisku honen adierazpen nagusia.

Erronka: borondate politikoa egotea pausoak eman daitezkeen elkarrizketa guneak sortu edo eratzeko. Desadostasun politikoak konpontzen eta bake-prozesu berri baterako oinarri sendoak finkatzen joatea izango da gune horien helburua. Era berean, Ezker Abertzalea berriz ere legearen baitan jarduteko oztoporik egon ez dadin lortzea.

d) Herritarren partaidetzaren gabezia

Arriskua: beharbada ematen ari diren pausoei buruz herritar gehienek informaziorik ez edukitzea, aurreko prozesuetan gertatu zen bezala.

Erronka: une oro emango diren aurrerapauso eta zailtasunen berri ematea gizarteari eta partaidetzatza eta mobilizazio guneak sortzea, herritarrek aukera izan dezaten prozesuak hartu beharko lukeen norabideaz hitz egin, erabaki eta bultzatu edo presioa egiteko.

Lokarriren gomendio bake prozesu berri bat bultzatzeko

Kontuan harturik bakeranzko egoeraren azterketan ikusitako lau arrisku handiak eta horiek dakartzaten lau erronka nagusiak, bai eta urtarrilaren 10ean –txosten hau ixten ari zelarik– ETAk ezagutzera emandako su-etenaren adierazpena ere, Lokarrik honako gomendioak egin nahi ditu:

1. Su-eten itzulezina

Azkenik, nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra iragarri zuen ETAk iragan urtarrilaren 10ean. ETAREN agiri honek ez ditu poztu sektore politiko eta sozial guztiak. Haatik, Lokarriren iritzian, urrats oso garrantzitsua da indarkeriaren behin betiko amaierarako bidean.

Balorazio hau egiteko, hiru euskarri objektibo hartu ditu kontuan Lokarrik: 1) indarkeriak dakarren mehatxu maila jaitsi da, 2) ETAk aintzat hartu ditu Bruselako Adierazpenaren eta Gernikako Akordioaren deiak eta 3) indarkeriari tokirik uzten ez dioten Ezker Abertzalearen estrategia eta apostu politiko berria onartu ditu ETAk.

Gertaera positibo hauen aurrean, Lokarriren aburuz, su-etenaren adierazpen hau itzulezina izatera bideratu behar da oran ahalegina. Horretarako, egiaztapena lehenbailehen jarri behar da abian su-etena betetzen dela bermatu ahal izateko.

2. Ezker Abertzalearen legalizazioa

Azken hilabeteetan Ezker Abertzaleak hainbat pauso eman ditu erakutsiz irmoa dela soilik baliabide politikoan, baketsuen eta demokratikoen aldeko bere apustua, bere adierazpenetan sinistuta agertu da indarkeriaren erabilera jada gaindituta dagoela helburu politikoak lortzeko baliabide bezala eta argi eta garbi azaldu du Alderdien legeak bildutako baldintzak betetzeko bere erabakia.

Arrazoi horiengatik, Ezker Abertzaleak legeztatuta egon behar duela uste du Lokarrik, bake-prozesu batean aukera berdintasunean parte ahal izateko aukera izan dezan.

Ezker Abertzalearen proiektu politiko berriaren legalizazioaren beharra eta premia defenditzen dituen gizartearen eskaera mantentzen lagunduko du Lokarrik, bake- prozesu itzulezin baterako ezinbesteko baldintza den heinean.

3. Herritarren protagonismoa

Bake-prozesu baten alde dagoela agertu dute herritarrek eta zeregin aktiboa eduki nahi dutela bake-prozesu berri batean. Horregatik, Lokarrik, herritarren sare bat den heinean, gizartearen mobilizazioa eta herritarren partaidetza sustatuko ditu bake-prozesu itzulezin baterako beharrezkoak diren baldintzak finkatuz joateko.

4. Sufrimendu guztiaren aintzatespena

Urte luzez indarkeriazko gatazka egoteak sufrimenduzko mapa zabal eta mingarria marraztu du gure gizartean. Sufrimendu horren adierazpen guztiak aintzatestea eta horiei tratu gizatiarra eta bidezkoa ematea aurrez aurre dugun erronka da. Motibazio politikoko indarkeriak eragindako biktimei buruz iragan abenduan Eusko Legebiltzarrean aurkezturiko txostenari ekarpenak egiteko konpromisoa hartu du Lokarrik, gai hauen gainean zabaldutako eztabaidetan modu eraikitzailean laguntzeko.